

FUTBOLA

Zelaia: Sanchez Pizjuan. Ordua: 17.00

SEVILLA

OSASUNA

ALINEAZIOAK

UNZUE	1	ROBERTO
DIEGO	2	ARAZARENA / MERINO
	3	BUSTINGORRI
MARTAGON	4	PEPIN
CORTIJO	5	SPASIC
SALGUERO	6	M. GONZALEZ
CONTE	7	URBAN
BENGOCHEA	8	LARRAINZAR II
ZAMORANO	9	AGUILA
RAMON	10	M. DOMINGUEZ
SUKER	11	STEVANOVIC
ESPARRAGO	Ent.	ZABALZA

Epailea: Yuste Gonzalez.

Osasunak behartutako aldaketak
Sevillako aurrelarietara eusteko

IRUNEA

Txomin Larraizaren hutsak Osasunako atzekaldean eraldatu egingo du. Zabalzakaren hitzetan «oso gizon egokia bait zen Zamorano edo Suker hartzeko». Denbora nahikoa izan du hala ere entrenatzaileak haren ordezkia hautatzeko, Pepinen azken orduko gripeak buruhauste gehiago eragin arren. Madrildarrak hasieratik jokatzeko aukera izango du baina, eta aldaketa bakarra egingo du Zabalzak hasierako hamaikakoan, Larraizari I ordezkatzeko duena: Merino ala Arozarena.

Sevilla etsai gogorra izango da gorritxoentzat, gaurko partidua gain UEFArako txartelak eskuratzeko lehian sartzeko arrisku handia bait dago, Osasunak gorakako bideari ekinez gero. Sanchez Pizjuan zelaian ohizko bi puntuak baino gehiago izango dira jokoa.

Bolada onean da Esparragoren taldea, Atletico de Madridi 0-3 irabazi eta gero, baina denboraldi osoan Sevillak erakutsi duen irregulartasunak baikor izateko arrazoirik ematen du. Etxeko zazpi partiduetan bi berdinketa eta garaipen bat lortu dute Sevillaren bisitari izan direnak, eta Zabalzak argi du zer egin behar den gaur emaitza ona lortzeko: «Sevillak baino hobeto jokatu».

Athleticen kontra zelairatu zuen hamaikakotik aldaketa bakarra egingo du Zabalzak, Txomin Larraizaren hutsak behartuta. Honako jokalariek izango dira Sanchez Pizjuanen hasieratik ariko direnak: Ro-



Pepin, gripearekin.

JOXE

berto, Spasic, Bustingorri, Arozarena ala Merino, Larraizari II, Martin Gonzalez, Stevanovic, Martin Dominguez, Urban eta Aguilá. Deialdia Unanua, Jose Mari, Angelov eta Cholak osatzen dute.

Sevillari dagokionez, Victor Esparragok ere aldaketa bakarra egingo du Vicente Calderonen irabazi zuen hamaikakoarekin alderatuz. Marcos zigortuta dago, eta hauexek izan daitezke Osasunaren kontra zelairatuko duen taldea: Unzue, Salguero, Diego, Martagon, Cortijo, Conte, Ramon, Andrade, Bengoetxea, Suker eta Zamorano. Aurrelarietan dituzten jokalariek aipagarrienak Sevillak, Real Madridera joan daitezkeen Ivan Zamoranoren osagarri egokiak bait da 'Sukerman' goletzaila.

Etxetik kanpo lehen garaipena
eskuratu nahi du gaur Realak

Toshackek zalantza handiak ditu Coruñaren kontrako hamaikakoa osatzeko

Real Deportivo de la Coruñaren kontrako partiduararekin agurtuko du urtea. Etxetik kanpo lehen garaipena lortzea da donostiarren helburua. Toshackek hamazazpi jokalaria eraman ditu Coruña aldera, baina azken momentura arte ez du zelairatuko duen hamaikakoa zehaztuko.

DONOSTIA

Etxetik kanpoko lehen garaipena oparitu nahi die Realak zaletuei. Donostiarrek oraindik ez dakite etxetik kanpo irabaztea zer den. John Toshack asmo horrekin abiatu zen atzo hamazazpi jokalarirekin Zubietako entrenamenduen ostean. «Etxetik kanpo irabaztea da falta zaiguna, hori lortu ez duten gutxienetakoak gara».

Galesak ez zuen hamaikakoari buruz arrastorik eman. Lehengo astean bezala, Imanol atzelaria da zalantza nagusietakoa. «Ostegunean bere eskuineko hankak onera egin zuen, baina bi egun hauetan berriz ez du onera egin. Ez nago batere ziur, korritzeko ez du arazorik baina baloia jotzeko orduan ez dabil batere ondo». Orioko atzelariak seguruenik ez du Deportiboren kontra jokatzeko.

Aste honetako entrenamenduetan ikusi denez, Toshackek aldaketa taktikoak egingo ditu Deportiboren kontrako partidurako. Litekeena da Luis Perez aurrelaria ordezkoren aulkian geratzeko eta zelai erdian beste gizon bat kokatzeko. Toshackek honako hamaikakoa zelairatu dezake: Gonzalez; Uri, Gorriz, Larrañaga, Agirre, Fuentes; Lunbreras, Imaz,

Zelaia: Riazor. Ordua: 17.00

DEPORTIVO

REALA

ALINEAZIOAK

LIANO	1	GONZALEZ
KIRIAKOV	2	FUENTES
ANTONIO	3	URIA
DJUKIL	4	LARRAÑAGA
MARTIN LASARTE	5	GORRIZ
SABIN BILBAO	6	AGIRRE
MUJKA	7	IMAZ
JOSE RAMON	8	OCEANO
KANATLAROSVKI	9	KODRO
FRAN	10	C. XAVIER
CLAUDIO	11	LUNBRERAS
BORONAT	Ent.	J. B. TOSHACK

Epailea: Sanchez Calvo.



Txema Lunbreras.

ANDER GILLENIA

Carlos Xavier, Oceano; eta Kodro. Luis Perez zelairatzea erabakitzen baldin badu, Lunbreras gera daitezke hamaikakotik at.

BORONATEKIN
EGOTEKO
GOGOA

Kazetariek eginko galderei erantzunez, John Toshackek Marco Antonio Boronati buruz hitzegi zuen atzoko prentsaurrekoan. «Zergatik ez diot agurtuko? Lehengo egunean egin zituen adierazpenen ostean lehen baino gogo handiagoa dut Marco agurtzeko». Boronatek argiagotzeko hitzegi behar duela uste du galesak, «zehatzago izan beharko luke adierazpenetan, gauzak airean uzteak ez du zentzurik. Zehazki zer pentsatzen duen jakin nahi dut».

Hala ere, Toshackek ustez partidua ez du «morbo» berezirik, «etxetik kanpo jokatzeko dugun beste partidua normal bat da. Oraindik ez dugu etxetik kanpo irabazi eta hori da orain gure helburu nagusia». Deportibok ordea partidua politik egin ditu azken ihardunaldietan.

Etxekoa otso, kalekoa uso

Hemen gaudenorentzat nahiz Galizian dauden zale askorentzat, 1991ko Realaren azken partidua morbo handia du. Etxean jaio, hasi eta hezi, jokalaria eta entrenatzaile egin den Boronaten Deportiboren aurka jokatzeko, nahi-tanahiez, errespetu galanta merezi du.

Lorturiko guztia Donostian eta donostiarrekin egindako merezimenduei esker erdietsi du. Inortxok ez dio ezer erregalatu nahiz eta «etxeko» kazetariren baten bonbardaketa inoiz jasan behar izan duen. Duela gutxi ere J.B. Toshackek eta 'Marca' kirol egunkariari eginiko adierazpenetan intentzio berezirik ere somatzen zen... «Donostiara etorri nintzenean Real UVIn zegoen, historian izan duen egoerarik larrien... eta «zalea ez dadila atera Atotxatik zenbaitetan atera den gonbitularriz». Zein zaila egiten den etxeko bati lanik errekonozitzea, zein xamurra kanpokoarena gorai-



INAKI ELORTZA

patzea! Zenbat eskatzen zaion sarritan etxekoari, kanpokoaren ezer gutxi erekin zein erraz konformatzen garen!

Gauza da, bi talde txuri-urdinak aurrez aurre ditugula urteari ADIO esateko. M.A. Boronaten lepoa aitzotaz pasatzeko prest izan denean bat baino gehiago, hara hor nondik, A Coruña-ko gorakako bidetara ekin diote. Kopan aurrera darraite, eta

Ligan 5 negatiborekin egotetik eta Sarriako garaipenari esker birekin egotera pasa dira. Kategoriarik eustea dute helburu.

Real bitartean, Logroño eta Bernabeu otsoari belarriak ikusi ondoren, esnatu zen gaur zortziko partiduan. Gol aukerak ondo gauzatu eta atzeritarrak euren gaitasunak erakutsiz nabarmendu ziren. Laugarren ihardunaldirako hiru negatiborekin egon den taldea egun bakararekin egotea ez dago gaizki. Gaur izan daitezke donostiarren lehen itzulian oraindik egonik nagusiak. Garaipenarekin urtea agurtu eta Al-baceteren kontrako partiduan urte berriari positiboarekin ekingo liokete.

Askotan ezer gutxirako balio izan ohi du aurrez entrenaturiko taldearen aurka jokatzeko. Toshack Bernabeutik burumakur bueltatu zen. Jantzi dezagun Real positiboz 1992rako.



ATHLETIC CLUB

BANKA-SISTEMARI HELDU EZ DIOTEN BAZKIDE Jn./Andr.k
Banka-helbideraketa sistemari heldu ez dioten bazkide Jn./Andr.k-entzako urteko txartelak ondoren azaltzen diren leku eta datan eskuratu ahal izango dira **1991ko TXARTELA AURRETIAZ AURKEZTUZ**

TXARTEL SALMENTA
SAN MAMES STADIUMean: (Txarteldegia, Luis Briñas k.an)

EGUNAK: Abenduaren 23tik urtarrilaren 4era

ORDUTEGIA: 10:30ETIK 13:30etara

17:00etatik 20:00etara

(jaiegunetan salbu) 24 eta 31 10:30etik 13:00etara

Bilbo, 1991ko abenduak 22

LANCIA



BILASA rekin dabil Athletic

Alameda Rekalde, 48 Tfn.: 410 12 55 BILBO Autonomia, 53 Tfn.: 427 58 20